



DOCENTIAZ PROGRAMA
UPV/EHUko irakasleen irakaskuntza jardueraren
ebaluazio programa

DOCENTIAZ programaren eskuliburua

2010eko maiatza

AURKIBIDEA

	Or.
Hitzaurrea	3
1. kapitulua. UPV/EHUko irakaslana ebaluatzeneko politika instituzionala	5
2. kapitulua. Programaren funtsa, helburuak eta ondorioak	8
2.1. Programaren helburuak	9
2.2. Programaren ondorioak	10
2.3. Programaren aplikazio eremua	10
2.4. Programaren izaera	11
2.5. Programaren faseak	11
2.6. Programa unibertsitateko kideen artean zabaltzea eta onartzea	12
3. kapitulua. Programaren egitura	13
3.1. Ebaluatu beharreko dimentsioak	13
3.2. Ebaluazio irizpideak	20
3.3. Informazio iturriak	20
3.4. Irakaslana Ebaluatzeneko Unibertsitate Batzordea	21
3.5. Programa garatzen laguntzeko zerbitzuak	22
4. kapitulua. Programa bere fase esperimentalean aplikatzeko prozedura	23
4.1. Deialdiaren irekiera	23
4.2. Eskaren aurkezpena	23
4.3. Ikastegiko Kalitate Batzordeak eratzea	23
4.4. <i>Irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritziri buruzko inkestan oinarrituta txostenak egitea</i>	23
4.5. Hainbat iturritatik informazioa jasotzea eta espedienteak egitea	24
4.6. Irakaslana Ebaluatzeneko Unibertsitate Batzordea eratzea	24
4.7. Ebaluazioko amaierako txostenak prestatzea eta zabaltzea	24
4.8. Alegazioen prozedura	25
5. kapitulua. Programa bere fase esperimentalean aplikatzenetik eratorritako erabakiak hartzeko ezarritako prozedura	26
5.1. Irakaslanaren ebaluaziotik eratorritako ekintzen jarraipena	26
5.2. Programaren erregulazio sistema	26

ERANSKINAK		27
1. eranskina.	Programan parte hartzeko eskabide eredua	29
2. eranskina.	Irakaslearen autotxosten eredua	33
3. eranskina.	Ikastegiko Kalitate Batzordearen txosten eredua	49
4. eranskina.	<i>Irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritziari buruzko inkestan oinarritutako txosten eredua</i>	59
5. eranskina.	Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordearentzako ebaluazio protokoloa	73
6A eranskina.	Irakaslearen amaierako txosten eredua	91
6B eranskina.	Erakundeari zuzendutako amaierako txosten eredua	101
7. eranskina.	Alegazioetarako formulario eredua	109
8. eranskina.	Irakaskuntza zamari dagokion 0 dimentsioaren gaineko simulazioa	113
9. eranskina.	Eskuliburuan erabilitako terminoen glosarioa	117

HITZAURREA

Goi mailako hezkuntzaren helburu garrantzitsuenetako bat ikasleei kalitatezko irakaskuntza ematea da. Irakaslearen prestakuntza akademiko, profesional eta ikertzaile egoki baterantz bideratuta dagoen irakaskuntza jotzen dugu kalitatezko zat. Horren baitan, ezagutzak, gaitasunak eta trebetasunak intelektualki pizgarri diren inguruneetan hartzen dira.

Unibertsitateak, bere jarduera hobetzeko eta justifikatzeko arduraren izanik, ematen duen prestakuntzaren kalitatea bermatzeko sistemak izan behar ditu. Hori lortzeko gakoetako bat, irakaslearen irakaskuntza jardueraren ebaluatzeko sistema bat ezartzea da.

UPV/EHUK kalitatezko irakaskuntza emateko konpromisoa hartzen du, ikasteko prozesu dinamikoan eta elkarlanekoan oinarritutako irakaskuntza, eta, hori lortzen dela bermatzeko, ezinbestekotzat jotzen du irakaskuntza jardueraren ebaluazioa egitea. 2007-2011 aldirako Plan Estrategikoak irakaskuntza taldeen prestakuntza eta berrikuntza nabarmentzen ditu, baita etengabeko hobekuntza sustatzen duten kudeaketa ereduaren bidez kalitatea areagotzeko beharra ere. Halaber, UPV/EHUKen Estatutuek unibertsitate jardueraren errendimendua neurtzearen beharra azpimarratzen dute VII. kapituluaren, *unibertsitate jardueraren ebaluazioari eta etengabeko hobekuntzari* buruzkoan.

UPV/EHUK esperientzia zabala du unibertsitateko eginkizunak ebaluatzearen arloan. Horrek irakaslearen irakaskuntza jardueraren ebaluatzeko behararen inguruko iritzia sortzen lagundu du eta ebaluazioaren aldeko kultura bat sustatu du. Hala ere, ebaluazio ekintza horien ezaugarri nagusia izan da ekintza zehatzak izan direla eta erreferentzia gisa informazio iturri bakarra izan dutela. Bestalde, ez dute irakaslearen ikuspegi behar bezain integratzailearik eta lotura eskasa dute UPV/EHUKen garatzen diren irakaslearen prestakuntza eta berrikuntzarako programekin.

Unibertsitateko ikasketen eta irakaslearen kalitatea bermatzea funtsezkoa da Europako Unibertsitate Eremua taxutzerakoan. Gaur egungo lege esparruak, Unibertsitateen Lege Organikoa aldatzen duen 4/2007 Legeak ezarria eta 1393/2007 Errege Dekretuak garatua, irakaslearen ebaluazioa unibertsitateko irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko estrategiatzat jotzen du. Aipatu araudian nabarmentzen da Unibertsitateak titulua diseinatzerakoan duen autonomia irakaslearen kalitatea ebaluatzeko eta hobetzeko prozedurak antolatuko dituen egiaztapen eta ziurtapen sistema egokiarekin bateratu behar dela. Ondorioz, Kalitatea Bermatzeko Sistemak barneratu dira eta ikasketen plan berrien funtsezko atala dira.

DOCENTIAZ programak irakaskuntza jardueraren ebaluatzeko oinarriak finkatu nahi ditu, irakaskuntzaren garapen profesionala lortze aldera, UPV/EHUKen garapen instituzionalak eta lurralde garapenak markatutako beharrak kontuan hartuta. Programa honekin irakaslearen funtzioa indartu nahi da eskainitako irakaskuntzaren ikuspegi integrala aplikatuta, iturri ezberdinetan oinarrituta sortzen dena (irakasleak, arduradun akademikoak, ikasleak eta sistema informatikoen emandako datuak). Informazio fidagarri eta egiaztatua ematen duen irakaskuntza jardueraren ebaluazio prozedura bat izateak karrera akademikoaren garapena eta titulazioen egiaztapena erraztuko du. DOCENTIAZ programaren emaitzek irakaskuntza jardunbide egokiak antzemateko balio izango dute eta UPV/EHUK diseinatutako irakaslearen prestakuntza eta berrikuntza programei lotuta egongo dira.

DOCENTIAZ programak ANECAren DOCENTIA programak ezarritako baldintzak betetzen ditu, Agentziak berak egindako egiaztapenean eta UPV/EHUK eta UNIQUAL agentziak 2007ko maiatzean sinatu zuten garapen hitzarmenean jasotzen den bezala. Hitzarmen horren ondotik, DOCENTIAZ programaren behin-behineko formulazioa egin zen, garai hartan Kalitate eta Ikasketen Berrikuntzako errektoreorde zen Nekane Balluerkak zuzendutako batzordearen ardurapean. Batzordea ondorengoek osatu zuten: Feli Arbizu, Irakaslearen Ebaluatzeko Zerbitzuko zuzendaria (SED/IEZ); Arantxa Azpiroz, Psikologia Fakultateko dekanoa; Idoia Blasco, UPV/EHUKo Idazkaritza Nagusiko burua; Alfonso Davalillo, Irakaslearen zuzendaria; Luis M^a Elizalde, Gipuzkoako Campuseko Euskara eta Irakaskuntza Plangintzako zuzendaria; Xabier Etxaniz, Arabako Irakaslearen UEko zuzendaria; Idoia Fernández, IKTetarako aholkularia (SAE/HELAZ); eta Osane Oruetxebarria, Zientzia eta Teknologiko Fakultateko idazkaria. Batzordeak SED/IEZ zerbitzuko langileen laguntza izan du.

Batzordearen lanaren emaitza 2008ko ekainean aurkeztu zen UPV/EHUKo Gobernu Kontseiluan. Hala ere, Gobernu Kontseiluak berak 2009ko uztailen gradu berriak onartu zituenekin komenigarritzat jo zen hasierako proposameneko zenbait alderdi eguneratzea eta birformulatzea (gradu horietan gauzatzen dira

titulazioen kalitatea bermatzeko sistema berriak). Aurkezten den programa aurreko proposamenaren funtsezko planteamenduari eragiten ez dioten alderdi formal bakan batzuk egokitzearen emaitza da.

Eskuliburu argitzaile hau "UPV/EHUko irakaslan ebaluatzeko politika instituzionala" izeneko kapituluarekin abiatzen da, bertan DOCENTIAZ programa kokatuta dagoeneko esparru instituzionala deskribatzen da. Bigarren kapituluak, "Programaren funtsa, helburuak eta ondorioak", sustatu nahi den irakaslan ebaluatzeko programarekin zerikusia duten hainbat atal aurkezten ditu: helburuak, ondorioak, aplikazio eremua, programaren izaera, faseak, hedapena, etab. Hirugarren kapituluak ebaluazioaren dimentsio, irizpide eta iturriak deskribatzen dira eta baita UPV/EHUko Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordearen eginkizunak eta osaera ere. Laugarren kapituluak DOCENTIAZ programa gauzatzeko prozeduraz dihardu. Azkenik, bosgarren kapituluak prozesuaren ondoriozko ekintzen jarraipenari eta erregulazio sistemari buruz hitz egiten da.

Eskuliburua ondorengo eranskinekin osatzen da: programan parte hartzeko eskabide ereduak, informazioa biltzeko erabiltzen diren hiru iturrien informazioa biltzen duten tresnen ereduak, Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordearentzako ebaluazio protokoloa, ebaluazioko amaierako txostena prestatzeko ereduak, alegazioetarako formularioa, 0 dimentsioan jasotako irakaskuntza zamak islatuko dituen balioen simulazioa eta eskuliburuan erabiltzen diren terminoen glosario bat.

Azkenik, eskuliburu hau eratzeko erreferentzia gisa erabili diren lanak aipatu behar dira: Agencia per la Qualitat del Sistema Universitari Catalunya (AQU) agentziaren ebaluazio programa, ANECAk sortutako Irakaskuntza Jarduera Ebaluatzen Laguntzeko Programa (DOCENTIA) eta Salamancako Unibertsitatean, Madrilgo Unibertsitate Autonomoan, Bartzelonako Unibertsitatean eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan garatutako proposamenak.

1. KAPITULUA. UPV/EHUko irakaslan ebaluatzeko politika instituzionala

Unibertsitatearen eginkizuna gizarte baten garapen kultural, zientifiko eta teknologikoa sustatzea da. Honek esan nahi du goi mailako hezkuntzaren kalitateak ezagutzaren gizartea eraikitzea bideratuta egon behar duela eta ezberdintasun sozialak gainditzearekin eta gizartearen garapen kultural, politiko eta teknikoko proiektuekiko konpromisoa duen biztanleria baten prestakuntza faboratu behar duela. UPV/EHUren 2007-2011 aldirako Plan Estrategikoak adierazten duenez "Unibertsitate honen asmoa Euskal Herrian ezagutzaren gizartearen erreferentzia gorena bihurtzea da, gizarteko kide guztien aberastasun pertsonala, trebakuntza eta aurrerapena ekarriko duen ingurune intelektual pizgarri bat sortuz".

UPV/EHU euskal gizartearen zerbitzura dagoen unibertsitate publiko bakarra da. Plan Estrategikoan hau azpimarratzen da eta ondorengo baieztatzen da: "*publiko* kontzeptuak hainbat elementu adierazten ditu: gure inguruaren zati garela eta berarekin konprometituta gaudela, gizartearen maila guztiei irekita gaudela, eta pluralak garela alor sozial eta kulturalen". Arrazoi hori dela medio, UPV/EHUk goi mailako hezkuntzaren kalitatearekin, bikaintasunarekin eta zuzentasunarekin konpromiso saihestezina du. UPV/EHUren izaera publikoak guztien ongiaren alde eta garapen kolektiboaren alde lan egiteko konpromisoa hartzea behartzen du, gizabanakoaren interes edo taldeko interes guztien gainetik.

UPV/EHUk irakaskuntzen kalitatearekiko etengabeko konpromisoa izan du. 1994ko urriaren 27ko saioan, UPV/EHUko Gobernu Batzarrak irakasleen jarduera akademikoaren eta ebaluazioaren Kontrol Araudia onartu zuen eta bere hitzaurrean unibertsitateko hainbat kolektibok gure unibertsitatean eskaintzen den irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko egindako etengabeko ahaleginak aitortzen ziren. Hori guztiori, erakundearen ebaluazio akademiko eta orokorreko esparru zabalago batean egin zen; ebaluazio horretan eragindako estamentuak modu aktiboan eta arduratsuan barneratu ziren. Bide horretatik, ebaluazio prozesuak funtsean prestakuntzara bideratuta zeuden, nahiz eta kontrol elementuak ere barneratzen zituzten.

UPV/EHUren Estatutuek (2004ko urtarrilaren 12ko EHAA) kalitatearekiko konpromiso hori biltzen dute, eta gainerako jarduera akademikoetara zabaldu eta helarazten dute.

3.1 artikuluan, UPV/EHUren helburuak deskribatzerakoan espresuki aipatzen da "*kalitatezko goi mailako irakaskuntza eskaintza [eta] ikasleen heziketa osoa bultzatzea*". Hori esanda, Estatutuek xede horretarako betebeharrak zehazten dituzte, nola taldeenak hala gizabanakoenak, eta aipatu *kalitatea* eskatzeko eskubide subjektiboak ere aitortzen dira.

Hala, Estatutuetako 117. artikulua irakaskuntzaren kalitatea eta gizartearen premiekiko egokitasuna zaintzera eta irakaskuntzaren, irakasleen eta ikasleen jarraipena eta ebaluazioa egingo dela ziurtatzera behartzen du UPV/EHU. III. tituluko VII. kapituluak, "*Unibertsitate jardueraren ebaluazioari eta etengabeko hobekuntzari*" buruzkoak, biltzen dituen xedapenei jarraituz (157tik 163ra bitarteko artikulua), UPV/EHUk irakaskuntzaren kalitatea bermatuko du, honela:

- a) Jardunaren plangintza estrategikoa eginda eta helburuak beteko direla ziurtatuko duten neurriak hartuta.
- b) Pedagogi berrikuntza bultzatuta eta bere kideak irakaskuntza eta ikerkuntzaren arloan sustatuta.
- c) Bere irakaskuntza eta ikerketa jarduera eta administrazio eta zerbitzuetakoa hobetzeko programazioak onartuta.
- d) Aplikatutako ekintza eta programazioen eta unibertsitate egitura guztien ebaluazio sistematikoa eginda.
- e) Gizarteari kontuak emanda.

Horretarako tresna nagusi bat izango du, bere unibertsitate jardueraren errendimenduaren neurketa sistematikoa, hain zuzen ere; honek autoebaluazioa eta kanpo ebaluazioak barneratzen ditu, azken hauek instantzia edo aditu independenteen eta unibertsitate egiturako maila ezberdinetako arduradunen arteko lankidetzara, kontsulta eta aholkularitza prozesu gisa eraten direlarik.

Betebehar hauek ez dagozkio Unibertsitateari soilik; aitzitik, Estatutuetako 159. artikuluan jasotzen den agindua betez, prozedura hauek nahitaez zabaldu dira bai ikastegietara (Estatutuetako 186. artikulua garatzen duen Ikastegien Oinarriko Araudiko 4.1 artikulua), bai unibertsitate sailletara (UPV/EHUko Sailen Oinarriko Araudiko 14.1 artikulua) eta bai ikerkuntzako unibertsitate institutuetara (Estatutuetako 203. artikulua garatzen duen Ikerkuntzako Unibertsitate Institutuen Oinarriko Araudiko 20.1 artikulua).

Unibertsitateko kide anitzeko organoek beren gain hartutako erantzukizunaz gain, Estatutuek irakasle eta ikertzaileak ere barneratzen ditu ahalegin horretan. Horiek ondorengo betebeharrak dituzte, Estatutueta 53. artikulua araberaz:

- UPV/EHU zerbitzu publiko gisa hobetzen eta bere funtzionamendua ahalbideratzen laguntzea, dagokien alorrean irakaskuntza, ikerkuntza eta administrazio lanak eginda.
- Ezagutza zientifikoak eta prestakuntza eguneratzea, irakaskuntza eta ikerkuntza jarduerak eta gaitasun pedagogikoa hobetzeko.
- Jarduera profesionalaren kontrol eta ebaluazio lanak egiteko UPV/EHUK ezarri dituen prozeduretan parte hartzea eta urtero sailari, ikerkuntza institutuari edo atxikita dagoen bestelako ikastegiari irakaskuntza, ikerkuntza eta kudeaketa jardueren berri ematea.

Azkenik, Estatutuek onartzen dute ikasleek funtsezko eginkizuna dutela prozedura horietan; horren haritik, unibertsitateko kalitatea hobetzeko programen diseinuan eta garapenean parte hartzeko eskubidea aitortzen zaie, arauz zehazten denaren arabera (Estatutueta 17. artikulua), eta horien ordezkari organo nagusiaren esku uzten da, hots, UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluaren esku, UPV/EHUn jorratzen diren irakaskuntza eta ikasketen kalitatea zaintzea, baita titulazio ezberdinen arabera ikasleen prestakuntza intelektual, kritiko, sozial, profesional, zientifiko eta kulturala zaintzea ere (UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluaren Araudiko 3. artikulua).

Estatutueta 163. artikulua araberaz, ekintza hauen guztien emaitza positiboek unibertsitate zerbitzuaren kalitatearen etengabeko hobekuntzan nabarmentzen diren unibertsitateko kideen aitormenera bideratutako ekintzak sustatzera bultzatzen dute UPV/EHU.

Hitzurrean aipatu den lez, UPV/EHUren 2007-2011 aldirako Plan Estrategikoak emandako irakaskuntzen kalitatea eta ikasleen emaitza akademikoak hobetzeko beharra azpimarratzen ditu, eta horretarako funtsezkoa izanik irakasleen prestakuntza. Irakasle eta Ikertzaileen 2007-2012 aldirako Plan Gidariari jarraiki, prestatzen ari diren eta finko dauden irakasteentzat politika bereziak ezarriko dira lanen esleipenari, prestakuntza proposamenei, beren lanpostuan egin beharreko ebaluazioari eta sustapen aukerei dagokienez. Halaber, Plan Gidaria aurrera eramateko tresnei dagokienez, irakasle eta ikertzaileen prestakuntza eta sustapena aipatzen dira. Horien artean irakasleen ebaluazioa eta ebaluazio hauetan oinarrituta gauzatzen diren prestakuntza espezifikoko planen zehaztapena nabarmentzen dira, irakasle guztiak Gobernu Kontseiluak ezarritako irakaskuntza, ikerkuntza eta kudeaketa funtzioetara etengabe eguneratzeko eta egokitzeko.

Aurreko guztiari gaineratu behar zaio titulu berrien proposamenei, nola graduokoek hala graduondokoek, Kalitatearen Barne Bermerako Sistemak (KBBS) zabaltzea dakarte. Ikastegi bakoitzak KBBS kudeatuko duen kalitate batzorde bat izango du eta, besteak beste, titulueta bakoitzera atxikitako irakasleen kalitatea zaintzeaz arduratuko da. Horregatik proposatu da irakasle bakoitzaren lanaren kalitatearen berri emateko informazio iturri instituzionalik egokiena Ikastegiko Kalitate Batzordea bera izan dadila.

Gure iritziz, KBBSek egiten duten irakasleen ebaluazioa "*eginkizun profesional batekiko eta xede instituzional justifikatu eta defendagarriarekiko pertsona batek burutzen duen jardun profesionalaren eta/edo dauzkan gaitasunen ebaluazio sistematikoa*" izango da (Joint Committee on Standards for Educational Evaluation: The personnel evaluation standards, 1988: 26. or.). Irakasleen ebaluazio prozesuek irakaskuntzaren garapen profesionala, garapen instituzionala eta lurralde garapena faboratu behar dute. Alderdi horiek guztiak modu dialektikoan erlazionatzen dira elkarren artean eta etengabe hartu behar dira kontuan irakasle politika orotan¹.

1. **Irakaskuntzaren garapen profesionala**, irakasleak bere zeregin profesionalarekiko ekintza eta gogoetan autonomia maila gero eta handiagoak hartzea ahalbideratzen dion prozesu iraunkor gisa ulertzen dugu; aldi berean, bere gaitasunak hobetzen ditu talde lanerako, erabakiak kolektiboki hartzeko eta lankidetzat instituzionalerako.
2. **Garapen instituzionala**, unibertsitateari modu kolektibo eta kooperatiboan jardutea ahalbideratzen dion prozesuari deritzogu, justizia sozialarekin, zuzentasunarekin, jardunbide etikorekin, hizkuntza ofizialen garapenarekin –berezi euskararen garapenarekin–, independentzia intelektualarekin eta ezagutza zientifikoaren ekoizpen eta hedapenarekin konprometituta dauden profesionalak prestatze aldera.

¹ Gogora dezagun irakasle politikaren barnean sartzen direla, irakasleen ebaluazioaz gain, prestakuntza, sustapena eta pizgarri ekonomikoak bezalako arloak. Ikusi ANECA (2007): Irakasleen Irakaskuntza Jarduera Ebaluatzen Laguntzeko Programa (DOCENTIA).

3. **Lurralde garapena**, unibertsitateak bere ingurune sozial eta komunitarioarekiko konpromisoa hartzen duen prozesu gisa ulertzen dugu, bokazio publikoarekin eta iraunkortasun ekonomiko eta sozialeko eta ingurumenaren iraunkortasuneko irizpideetan eta gizarteratzeko irizpideetan oinarrituta.


Ageriko gauza da UPV/EHUko irakasle guztiek ez dutela beren lana baldintza berdinetan garatzen beren karrera profesionalean eta hau aldatu egiten dela, beste aldagai batzuen artean, irakaskuntza zamaren, lan eta harreman ingurunearen, esperientzia urteen eta prestakuntzaren arabera. Hori dela eta, aipatu baldintzak aintzat hartuko dira ebaluazioa egiteko garaian eta UPV/EHUko irakasleei profesionalki garatzea ahalbideratuko dien prestakuntza politikak bermatuko dira.

Azken finean, irakaslanaren ebaluazioari dagokionez UPV/EHUK duen politika instituzionalak irakaslearen jardura ikuspegi integral batetik baloratzeko eta aitortzeko interesari erantzuten dio.

2. KAPITULUA. Programaren funtsa, helburuak eta ondorioak

Aipatu bezala, UPV/EHUK kalitate, bikaintasun eta zuzentasunarekiko konpromisoa du, arlo horiek guztiak garapen profesional eta instituzional eta lurralde garapen gisa gauzatu behar dira politika instituzionalaren esparru orokorrean. Horretarako sortzen da DOCENTIAZ programa, barne izaera duen irakaskuntza jardueraren ebaluazio prozesua, hau da, bere baitan kudeatua eta garatua berezko helburuen akuilu izateko ANECAk eta UNIQUALEk bermatua, kalitatearen ebaluaziorako eta egiaztapenerako agentzia biek ezarritako parametro eta prozeduren bitartez.

Ebaluazio programa eta tresna den aldetik, DOCENTIAZek azken asmo hauek irakaskuntza jardunbideetan dimentsionatu eta txertatu behar ditu, horiek izanik benetako azterketa unitatea. Horien baitan, bai irakasleak bakarka bai irakaskuntza taldeak beren zereginez ohartzea eta jardunbide egoki bihurtzen ari direnak bultzatzea ahalbideratzen da. Funtsean, gure lana irakasleek aipatu jardunbideen gainean gogoeta egiteko baldintzak sortzea izango da, irakasleek hauek zehatz ditzaten, sistematizatu ditzaten, euren kide eta ikasleen epaia eska dezaten eta baloratuak izan daitezen, bai aitormenari eta sustapenari dagokienez bai prestakuntza eta sakontzeari dagokienez.



1. irudia

Irakaskuntza jardunbide egokiak egiazko testuingurutan zehazten dira eta hauen baldintzen menpe daude hertsiki. Gure ustez, eredu honetan ez dago egoera bakoitzera eraman daitekeen jardunbide unibertsal egokirik; aitzitik, ezarri diren helburuak lortzen modu eraginkorrean, zehatzean eta sortzailean lagun dezaketen jardunbide anitz daude. Irakaskuntza lanaren konplexutasuna aintzat hartuta, esan daiteke jardunbide egokiak zenbatezinak direla eta testuinguru baten barnean ulertu behar direla, baina diziplina zientifikoek hauen ezaugarriak aurkitzea ahalbideratzen duten printzipioak ematen dizkigute, programa honen oinarritzko ideia bezala erabiliko ditugunak. Honako hauek dira (ikusi 1. irudia):

- a) Irakaskuntza jardunbide egoki bat osatzen duten elementuak ekintza eta gogoeta dira. Jardunbide egoki batek, beraz, bi elementuok lotu behar ditu ekintza-gogoeta-ekintza ziklo etengabea sortuz eta gelan eta gelatik at garatu behar da. Irakaskuntza jardunbide egokiek ikaslearen ikasteko prozesua errazten dute eta informazio garrantzitsua helarazten diete ikastegiari eta unibertsitateari bere osotasunean, bai beren helburuak betetzeari begira etengabeko berrikuspina eta hobekuntza egiteko garaian, bai hauek birplanteatzeko garaian ere, beharrezkoa balitz.
- b) Irakaskuntza ekintza kolektiboa da, bai ikuspegiari bai garapenari dagokienez. Bere konfigurazio, antolaketa, garapen eta berrikuspen fase ezberdinetan ezinbestekoa da bere kideak elkarlanean aritzea. Ez da irakasle bakoitzaren jardunbide egokiak identifikatzera mugatu behar, indibidualki; jardunbidea lankidetzaren bidez garatzen duten irakaskuntza taldeak ere sustatu behar dira.
- c) Irakaskuntza jardunbide egoki baten erantzukizuna ez da irakaslearen erantzukizuna soilik, erakundearena ere bada. Alde horretatik, zenbait kasutan, iturri ezberdinetatik jasotako informazioak erantzukizun instituzionala duten hainbat jardunbide hautematea ahalbideratuko du (saila, ikastegia, irakasgai bereko irakasle taldea, maila bateko irakasle taldea); horiek aitormena jasotzeko modukoak izan daitezke edo, bestela, hobetzeko artean koka litezke.
- d) Irakaskuntza ikasteko prozesuaren kontzeptuari lotuta dago. Gaitasunak hartzen ez badira, ezin dugu esan garatu den irakaskuntzak baliorik duenik. Horren haritik, irakaskuntzaren plangintza eta garapena irudi nagusia den ikaslearen inguruan egin behar dira. Ikaslearen eta ikaslearekiko prestakuntza beharrak, motibazioa, inplikazioa eta elkarrekintza aitortzera bideratutako ekintzak funtsezko zioak dira eredu honetan.
- e) Irakaskuntza aldagai ugariz inguratuta dagoen jardunbide konplexua da eta ikuspegi horretatik ebaluatu behar da. Euskal Herriko Unibertsitatea hainbat alderdi uztartzen dituen erakundea da: hiru campus, izaera elebiduna, jakintza arlo ugari, zenbait titulaziotan ikasle asko, etab. Alderdi horiek arazoak sortzen dituzte irakasleen artean irakaskuntzaren banaketa egiterakoan. Irakaskuntza zamak, irakaslearen borondatearen baitan zuzenean egon gabe, eragin negatiboa izan dezake bere zereginaren garapenean. Zuzentasuna bilatzen duen eredu batek ezberdintasuna eragiten duten testuinguruzko egoerak hauteman behar ditu eta birkokatu egin behar ditu, ebaluazio zentratuago eta bidezkoago baten alde egiten laguntzeko.

2.1. Programaren helburuak

Irakasleei dagokienez:

- A. Goi mailako hezkuntzan kalitatea, bikaintasuna eta zuzentasuna sustatzen laguntzen duten irakaskuntza jarduerak aitortzea eta saritzea.
- B. *Feed-back* eraikitzaile bat finkatzea bere jarduera profesionalaren ezagutza kontrastatuan sakontzeko.
- C. Irakaskuntza profesionalaren garapenean eragina duten ekintzak planifikatzea.

Unibertsitateari dagokionez:

- D. Kalitatezko irakaskuntza jarduera baloratzea.
- E. Irakaskuntza jardueraren azterketa eta erabakiak hartzea erraztuko dituzten ebidentziak izatea, berauek hobetze aldera.
- F. Prestakuntza eta garapen profesionaleko programak bideratzea.
- G. Berrikuntzan eta lankidetzan oinarritutako lan kultura bat sustatzea profesionalki, instituzionalki eta lurralde moduan garatzeko.

Helburu hauek lortzeko UPV/EHUren zeregina ondorengoa izango da:

- Programa honetatik eratorritako ekintzak sustatzeko ekarpen ekonomiko zehatza ematea.
- Irakasleei laguntzeko antolakuntza egitura garatzea.
- Ikastegiko Kalitate Batzordeen funtzionamendu araudia garatzea, baita Irakaslana Ebaluatze Unibertsitate Batzordearen eta Berme Batzordearen araudia ere.
- Irakasleei, UPV/EHUK irakasleen ebaluazioari dagokionez markatuta dituen jarraibideen berri ematea.
- Irakasleen garapen profesionala sustatuko duen eta etorkizuneko titulazioen egiaztapen prozesuetan finkatutako baldintzei erantzungo dien unibertsitate irakaskuntzaren ebaluazio sistema bat izatea.

2.2. Programak bere fase esperimentalean dituen ondorioak

Fase honetan DOCENTIAZ programak bi ondorio mota izango ditu:

1. Irakasleei eragiten dieten ondorioak

- Irakaskuntza jardunbide egokiak jendaurrean aitortuko dira eta irakasleei ziurtagiria emango zaie.
- Aldeko ebaluazioa duten irakasleek prestakuntza programetan parte hartzeko lehentasuna izango dute.
- Aurkako ebaluazioa duten irakasleek banakako prestakuntza plana prestatuko dute. Zeregin horretan, HELAZren laguntza izango du eta bere ikastegiko Kalitate Batzordeak jarraipena egingo du.
- Aldeko ebaluazioa duten irakasleek HBPetan parte hartzeko lehentasuna izango dute.

2. Unibertsitateari eragiten dioten ondorioak

- Irakaslana ebaluatzearen emaitzak irakasleen kontratazio berriak bideratuko dituzten adierazleetakoa bat izango dira.
- Irakaslana ebaluatzearen emaitzak irakasleak trebatzeko politika instituzionalak bideratuko dituzten adierazleetakoa bat izango dira.
- Lortutako emaitzak aztertuta, dagokien unibertsitate agintariak banakoen eta taldeen (irakasle talde garrantzitsuen) jardunbide egokiak sustatuko dituzte eta laguntza, orientazioa eta prestakuntza emateko ekintzak burutuko dituzte, kalitatea eta zuzentasuna bultzatze aldera.
- Agintari akademikoek beren jardura autoebaluatze eta beren garapenerako beharrezkoak diren antolakuntzari eta kudeaketari dagozkion aldaketak egiteko erabili beharko dute irakaslanaren ebaluazioan lortutako informazioa.
- Azkenik, unibertsitate agintarien ardura izango da ebaluazio emaitzak etikoki eta modu gardenean erabiltzea.

2.3. Programaren aplikazio eremua

DOCENTIAZ programan UPV/EHUko irakasle guztiek parte hartu ahal izango dute, bai funtzionarioek bai kontratatuek, lanaldi osoan edo partzialean egon. Programak UPV/EHUen ematen diren ikasketa ofizial guztiei eragiten die (gradua, masterra eta doktoregoa).

Karrerako irakasle funtzionarioek eta lan kontratu finkoa edo kontratu egonkorra duten irakasleek DOCENTIAZ programan parte hartzeko baldintza hauek izan behar dituzte:

1. UPV/EHurekin gutxienez bost urteko kontratuzko harremana eduki izana eta
2. Gutxienerako irakaskuntza zama bat egin izana:
 - 75 kreditu, lanaldi osoan aritzen diren irakasleentzat.
 - 45 kreditu, lanaldi partzian aritzen diren irakasleentzat.
 - 45 kreditu, kargu akademikoan dihardutelako eskola ematetik salbuetsita dauden irakasleentzat.

Ebaluatuko den irakasle funtzionarioen eta kontratatutako irakasle egonkorren denboraldia GAUR aplikazioan aitortutako kredituei dagozkien azken bost ikasturteei dagokiena izango da. Eskatutako kredituak ez badira lortzen, ebaluazio epea luzatu egingo da, ezarritako gutxienerakoa lortu arte. Epe horretan arduraldiz aldatuz gero, gutxienerako irakaskuntza zama modu proportzionalan kalkulatu da, ondorengo formularen arabera:

$$\frac{(\text{urteakosoan} * \text{GutxienerakoIZosoan}) + (\text{urteakpartzian edo arguan} * \text{GutxienerakoIZpartzian})}{\text{ebaluazioaldiarenurteak}}$$

Adibidez, demagun arduraldi osoko kontratua duen irakasle egonkor batek ebaluazio aldia osatzen duten bost urteetatik bi karguren batean eman dituela. Halakoetan, ondorengoak eskatuko lirateke:

$$\frac{(3 * 75) + (2 * 45)}{5} = 63 \text{ kreditu}$$

Aldi baterako kontratua duten irakasleek baldintza hauek bete beharko dituzte DOCENTIAZ programan parte hartu nahi badute:

1. UPV/EHurekin gutxienez hiru urteko kontratuzko harremana eduki izana eta
2. Gutxienez 36 kredituko irakaskuntza zama bat egin izana.

Aldi baterako lan kontratua duten irakasleei ebaluatuko zaien denboraldia (kontratu urteen arabera) hiru eta bost ikasturte artekoa izango da, GAUR programak aitorturiko kredituei dagozkien azken ikasturteenak. Eskatutako kredituak ez badira lortzen, ebaluatu beharreko denboraldia luzatu egingo da, gutxienerako kreditu kopurua lortu arte.

Aldi baterako kontratua duten eta eskaera unean UPV/EHurekin kontratuzko harremanik ez duten irakasleek DOCENTIAZ programan parte har dezakete, betiere, eskatutako baldintzak betetzen badituzte.

Goi mailako hezkuntzako beste erakunde batzuetan emandako irakaskuntza ez da aintzat hartzen.

2.4. Programaren izaera

Fase esperimentalean, 2012. urtera arte, programa borondatezkoa izango da. DOCENTIAZ Batzordeak fase esperimental hau ebaluazioaren osagai teknikoak era egokian finkatzeko eta prozesu ebaluatzailea erraztuko duen konfiantza giro bat sortzeko ezarri du. Gainera, fase honetan zehar burututako ebaluazioak programan egokitzen jotzen diren zuzenketak edo hobekuntzak sartzeko erabiliko dira. Ondoren, programaren behin betiko ezarpenak zein izaera izango duen erabaki beharko da.

2.5. Programaren faseak

DOCENTIAZ programaren garapena honako faseok eratzen dute:

1. UNIQUALEkin egindako hitzarmenaren sinadura onartzea Gobernu Kontseiluan. 2007ko maiatza.
2. Ebaluazio eredia diseinatzeaz arduratuko den DOCENTIAZ Batzordea sortzea. 2007ko ekaina.
3. UPV/EHUn DOCENTIAZ programaren ebaluazio eredia eta prozedura prestatzea. 2007ko ekainabendua.

4. UNIQUALEk ebaluazio ereduaren eta prozeduraren diseinua egiaztatzea. 2008ko urtarrila-ekaina.
5. DOCENTIAZ eredia UPV/EHUn titulazio berrietara egokitzea. 2009ko uztaila-iraila.
6. DOCENTIAZ eredu berria ANECARA eta UNIQUALera bidaltzea, egiazta dezaten. 2009ko urria.
7. Gobernu Kontseiluak DOCENTIAZ eredia onartzea. 2009ko abendua-2010eko urtarrila.
8. Fase esperimentalaren garapena: 2010/2011
 - 1. deialdia: 2010eko maiatza
 - Programaren ezarpenerako beharrezko azpiegitura sortzea→
 - Laguntza zerbitzu teknikoa eta jarraipena: Irakaslana Ebaluatze Zerbizua (SED/IEZ).
 - Ikastegietako Kalitate Batzordeak (2010eko uztaila) eta Ebaluazio Batzordea (2010eko iraila) eratzea eta horiei informazioa helaraztea
9. Fase esperimentalaren 1. deialdia ebaztea. 2010eko azaroa.
10. Fase esperimentalaren 1. deialdia aztertzea eta baloratzea. 2010eko abendua.
11. Fase esperimentalaren 2. deialdia argitaratzea. 2011ko urtarrila.
12. Fase esperimentalaren 2. deialdia ebaztea. 2011ko uztaila.
13. Fase esperimentalaren 2. deialdia aztertzea eta baloratzea. 2011ko abendua.
14. Eredua birformulatzea → UNIQUALEk eredia baliozkotzea.
15. Eredua behin betiko ezartzea. 2012

2.6. Programa unibertsitateko kideen artean zabaltzea eta baliozkotzea

UPV/EHUn DOCENTIAZ programa ezartzearen arduradunek 2007ko urri hasieran ikastegi guztietako dekanok eta zuzendariei DOCENTIAZ Batzordeak 2007ko ekainetik urrira egindako lanaren berri eman zieten. Gainera, 2007ko maiatzean, horiekin guztiekin egindako bileraren barnean, jada aipatu zen DOCENTIAZ programa abian zegoela.

2007ko urrian eta azaroan zehar, bilkurak antolatu ziren irakasle eta ikertzaileen eta ikasleen ordezkari organoekin (Enpresa Batzordea, atal sindikalak eta Ikasleen Kontseilua) DOCENTIAZ programaren berri emateko. Era berean, programa honen eskuliburua aurkeztu zitzaion Gizarte Kontseiluari, Saileko zuzendariei eta Gobernu Kontseiluko kideei.

2009ko irailean Kalitate eta Ikasketa Berrikuntzako errektoreordeak titulazio berrien errealitatera egokitutako programa aurkeztu zion Akademia Antolakuntzako Batzordeari eta Irakasleen Batzordeari, bi batzordeetan egindako iradokizun gehienak barneratu ondoren. Eskuliburu berria egiaztatu eta onartu ondoren, bilerak egingo dira beraz irakasleei eta ikastegietako arduradunei aurkezteko eta hauen artean zabaltzeko.

3. KAPITULUA. Programaren egitura

3.1. Ebaluatu beharreko dimentsioak

Jarraian agertzen den taulan, ebaluatu beharreko dimentsioak, azpidimentsioak, elementuak eta baloratu beharreko adierazleak eta bakoitzak duen garrantzia azaltzen da. 0 dimentsioa delakoak, irakaskuntza zamari dagokionak, elementu zuzentzaile gisa dihardu. Hala, irakaslearen amaierako txostenean lortutako guztizko puntuazioa dimentsio horretan lortutako puntuazioaren arabera haztatzen da.

0 dimentsioa

0 dimentsioaren helburua: faktore zuzentzaile gisa jardutea eta irakaskuntzan dauden zailtasun maila ezberdinak kontuan hartzea.

Ebaluatu beharreko denboraldian aplikazio informatikoak automatikoki aplikatuko ditu dagozkion faktoreak irakaslearen irakaskuntza zaman. Irakasleak dimentsioaren amaieran kokatuta dagoen atal irekia bete beharko du soilik. Gehienez, bost lerro idatziko ditu.

Sei dira irakaskuntza-lanaren zailtasuna neurtzeko kontuan hartzen diren faktoreak: irakasten diren ikasgaiak; zein ikastegitan irakatsi den; talde eta ikasturte bakoitzeko ikasle-kopurua; lehenengo mailako enborreko eta nahitaezko irakasgai-kopurua; lan-egoera; eta, azkenik, irakaskuntza-lanaren garapena eragotz dezaketen baldintzak biltzen dituen faktorea. Faktore-multzo horretatik indize bat ateratzen da, eta indize horrekin biderkatzen da ebaluazio-aldian irakasleak eman dituen kreditu-kopurua: horrela lortzen da irakats-betebehar zuzendua. Azkenik, kalkulatu da irakats-betebehar zuzendu hori irakats-ahalmenaren (kontratuan esleituriko kredituen, ken karguagatiko edo lizentziagatiko murrizketa-orduak). ehuneko zenbat den.

- Lortutako ehunekoak % 80koa edo txikiagoa bada, ebaluazioan lortutako puntu kopurua 0,9z biderkatzen da.
- Lortutako ehunekoak % 80 eta % 100 bitartean badago, ebaluazioan lortutako puntu kopurua 1ez biderkatuko da.
- Lortutako ehunekoak % 100 baino handiagoa eta % 110ekoa edo txikiagoa bada, ebaluazioan lortutako puntu kopurua 1,1ez biderkatuko da.
- Azkenik, lortutako kreditu kopurua % 110ekoa edo handiagoa bada, ebaluazioan lortutako puntu kopurua 1,2z biderkatuko da.

Irizpidea: Konplexutasuna

1 dimentsioa. Irakaskuntzaren plangintza

1 dimentsioaren helburua: Titulazioko irakaskuntza plangintzaren kalitatea baloratzea. Europako Unibertsitate Eremura (EUE) egokitutako tituluetan, irakaskuntza plangintzak titulua planifikatzeaz eta garatzeaz arduratzen den batzordeak ezarritako jarraibideekin bat etorri beharko du.

Bi elementu jasotzen dira: irakasleak gaia/modulua/irakasgaia planifikatzea, eta irakasle taldeko kideekin gainerako irakaskuntza jarduketak koordinatzea.

Plangintza Batzordeak ezarritako eredutik abiatuta, irakasleak bere gaia/modulua/irakasgaia planifikatzen du, irakaskuntzaren xedea zehaztuta (helburua, gaitasunen garapena...). Ikasle taldearen ezaugarriak aintzat hartuta, irakaskuntza metodoa eta/edo aplikatu beharreko irakatsi eta ikasteko modalitateak ezartzen ditu, baita erabiliko diren baliabideak ere (bibliografia...). Azkenik, ikasleek ikasteko prozesuan aurrera egin duten egiaztatzeko aplikatuko dituen ebaluazio metodoak eta irizpideak ezartzen ditu.

Irizpideak:

- *Unibertsitatearen eskakizunetarako egokitzapen maila*
- *Eraginkortasuna*
- *Sormena*
- *Ikaslearen autonomia sustatzea*

- *Barne koherentzia*

2 dimentsioa.- Irakatsi eta ikasteko prozesuaren garapena

2 dimentsioaren helburua: Irakatsi eta ikasteko prozesuaren garapena tituluan ezarritako jarraibideekin bat datorren edo ez baloratzea. Europako Unibertsitate Eremura (EUE) egokitutako tituluetan, irakatsi eta ikasteko prozesuaren garapenak titulua planifikatzeaz eta garatzeaz arduratzen den batzordeak ezarritako jarraibideekin bat etorri beharko du.

Irizpideak:

- *Unibertsitatearen eskakizunetarako egokitzapen maila*
- *Sormena*
- *Komunikazio gaitasuna*
- *Barne koherentzia*
- *Ikasleen autonomia sustatzea*

3 dimentsioa.- Emaitzak

3 dimentsioaren helburua: Prestakuntza helburuei dagozkien emaitzak baloratzea. Horretarako, ikasleen emaitza akademikoak eta irakaskuntza jarduerarekiko gogobetetasun maila aztertuko dira. Era berean, zuzendutako edo gainbegiratutako lan akademikoak egin izana eta doktorego tesiak zuzendu izana hartuko da kontuan.

Irizpideak:

- *Gogobetetasun maila (ikasleak, irakasleak)*
- *Eraginkortasuna*
- *Ikasleen autonomia sustatzea*

4 dimentsioa.- Irakaskuntzaren garapen profesionala: prestakuntza, berrikuntza, eta hobekuntzara bideraturiko jarduera instituzionalak

4 dimentsioaren helburua: UPV/EHUko irakasleen berrikuntzarako eta etengabeko hobekuntzarako joera baloratzea, bikaintasuneko irakaskuntza lortze aldera.

Irizpideak:

- *Unibertsitatearen eskakizunetarako egokitzapen maila*
- *Irakaskuntza berrikuntzarako joera*

Gutxienez irakaslanaren erdia euskaraz egiten duten irakasleek lortutako puntuak 1,2 biderkatuko dute. Betiere, ebaluazioaren azken emaitza 120tik gorakoa ez bada.

DOCENTIAZ PROGRAMAREN DIMENTSIOAK, AZPIDIMENTSIOAK, ELEMENTUAK, ADIERAZLEAK ETA HAUEN GARRANTZIA

DIMENTSIOAK	AZPIDIMENTSIOAK	ELEMENTUAK	ADIERAZLEAK	GARRANTZIA (%)
<p>O. IRAKASKUNTZA ZAMA Irizpidea: ◦ <i>komplexutasuna</i></p>	<p>0.1.- Irakaskuntza zama</p>		<ul style="list-style-type: none"> • Irakaskuntza enkargua (emandako kreditu kopurua eta irakaskuntza-enkargu eskuz) konparatuta irakats-ahalmenarekin (kontratuan esleituriko kredituen, ken karguagatiko edo lizentziagatiko murrizketa-orduak) • Emandako irakasgaien aniztasuna • Irakatsi den ikastegi kopurua • Ikasle kopurua taldeko • Graduaren lehenengo mailan emandako irakasgaiak • Laneko testuingurua (kontratu mota) • Atal irekia irakasleek beren akarpenak jasotzeko 	
<p>1.- IRAKASKUNTZAREN PLANGINTZA (% 20) Irizpideak: ◦ <i>Unibertsitatearen eskakizunetarako egokitzapen maila</i> ◦ <i>Eraginkortasuna</i> ◦ <i>Sormena</i> ◦ <i>Ikasleen autonomia sustatzea</i></p>	<p>1.1.- Gaien plangintza eta beste irakaskuntza jarduketa batzuekiko koordinazioa</p>	<p>1.1.1.- Gaien plangintza (% 50)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Irakaskuntza planaren kalitatea: Plangintza Batzordeak ezarritakoarekiko egokitzapen maila. 	<p>10</p>
		<p>1.1.2.- Beste irakaskuntza jarduketa batzuekiko koordinazioa (% 50)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Mailako eta irakasgaiko koordinatzaile lana • Irakasle taldeen barnean lankidetzan parte hartzea: irakasgaia, taldea, hizkuntza, maila, titulazioa. 	<p>10</p>

<p>2.- IRAKATSI ETA IKASTEKO PROZESUAREN GARAPENA (% 40)</p> <p>Irizpideak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ◦ Unibertsitatearen eskakizunetarako egokitzapen maila ◦ Sormena ◦ Komunikazio gaitasuna ◦ Barne koherentzia ◦ Ikasleen autonomia sustatzea 	<p>2.1.- Irakatsi eta ikasteko jarduerak eta irakaskuntzarako materialak</p>	<p>2.1.1.- Burutu irakatsi ikasteko jarduerak diren eta (% 70)</p>	<p>Metodologia</p> <ul style="list-style-type: none"> • Irakaskuntza planaren testuingurua sortzeko estrategien erabilera: itxaropenak doitzea, motibatzea, aurretiko ezagutza zientifikoekin eta egunerokoekin lan egitea, etab. • Beharrezko metodoen erabilera, zalantzen aurkezpena eta gogoetaren sustapena, informazioa ezagutza garrantzitsu bilakatzeko egoerak sortuz. • Asmo argi eta argudiatua duten lan metodologia ezberdinen erabilera. <p>Ikasleen partaidetza</p> <ul style="list-style-type: none"> • Norabide anitzeko elkarrekintzaren sustapena, ikaslearen komunikazioa eta inplikazioa bultzatuz. <p>Ikasteko prozesuen ebaluazioa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ebaluazio metodoak ezagutza eta gaitasunak hartzera egokitzea. 	28
		<p>2.1.2.- Irakaskuntzarako materialak eta baliabideak (% 30)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euskararen ekoizpenari bereziki so eginez irakaskuntza materiala prestatzea (ISBNdun liburuak, liburuen kapituluak, ikus-entzunezko materialak, softwarea...), lankidetzari lehentasuna emanez. 	12

<p>3.-EMAITZAK (% 20) Irizpideak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ◦ <i>Gogobetetasun maila</i> ◦ <i>Eraginkortasuna</i> ◦ <i>Ikasleen autonomia sustatzea</i> 	<p>3.1.- Prestakuntza helburuei dagozkien emaitzak</p>	<p>3.1.1.- Prestakuntza helburuei dagozkien emaitzak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Emaizta akademikoak eta bere eboluzioa mailako/taldeko/antzeko gaietako/titulazioko batezbestekoarekiko. (4 puntu) • Ikasleek irakaskuntza jarduerarekiko duten gogobetetasun maila. (8 puntu) • Zuzendutako edo gainbegiratutako lan akademikoen betetze maila: gradu amaierako lanak, master amaierako lanak, masterretan tutore izan dituzten lanak, borondatezko praktiketako lanak eta karrera/master amaierako proiektuak. (4 puntu) • Doktorego tesien zuzendaritza, Europakoei eta sari edota aipamen bat lortu dutenei arreta berezia eskainiz. (4 puntu) 	<p>20</p>
---	---	---	---	------------------

<p>4.- IRAKASKUNTZAREN GARAPEN PROFESIONALA: PRESTAKUNTZA, BERRIKUNTZA, ETA HOBEKUNTZARA BIDERATURIKO JARDUERA INSTITUZIONALAK (% 20)</p> <p>Irizpideak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▫ <i>Irakaskuntza berrikuntzarako joera</i> ▫ <i>Unibertsitatearen eskakizunetarako egokitzapen maila</i> 	<p>4.1.- Irakaskuntzaren kalitate instituzionaleko prozesuetan parte hartzea (% 10)</p>		<ul style="list-style-type: none"> • Irakaskuntza hobetzeko diseinu eta ebaluazio jardueretan parte hartzea, erakunde mailan nahiz ikastegi mailan: IBPn parte hartzea, batzordeetako aholkulari izatea, saileko irakaskuntza batzordeetan parte hartzea, kalitate ziurtagiri eta aipamenak lortzeko inplikazio maila aztertzea, Practicum batzordeetan parte hartzea, beren irakaskuntza proiektua garatzen ari diren irakasleen tutoretza egitea, ikasleen truke programetan parte hartzea (SENECA, ERASMUS, SICUE...). 	2
	<p>4.2.- Prestakuntza (% 40)</p>	<p>4.2.1.- Jasotako prestakuntza (% 60)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Irakaskuntza jarduera hobetzeko prestakuntza ikastaroetan parte hartzea, bereziki UPV/EHUK antolatutakoetan 	5
		<p>4.2.2.- Emandako prestakuntza (% 40)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Irakaskuntza jarduera hobetzeko ekintza instituzionaletan prestatzaileen prestatzaile gisa emandako ikastaroak, bereziki UPV/EHUn eskainitakoak. • Mintegi, jardunaldi, biltzar eta ikastaroetan hizlari moduan parte hartzea. 	3
	<p>4.3.- Irakaskuntza berrikuntza (% 25)</p>		<ul style="list-style-type: none"> • Beren jakintza arloarekiko irakaskuntza berrikuntza edo irakaskuntza metodologia berrien proiektuen zuzendaritza, partaidetza edota hedapena, UPV/EHUn garatutakoei lehentasuna emanez. • Bere jakintza arloari dagokion hezkuntza berrikuntzaren arloko argitalpen aintzatetsiak. 	5

	4.4.- Proiekzioa (% 10)		<ul style="list-style-type: none"> • Irakasle bisitari gisa beste unibertsitate batzuetan eskolak emateko gonbidapenak/egonaldiak. • UPV/EHUren irakaskuntzaren kanpo ebaluazioren nazio mailako edo nazioarteko batzordeetako kide aditu lez. • Irakaskuntza jarduerarekin zerikusia duten jasotako sari edo bereizgarriak. • Irakaskuntza arloko aldizkarien argitalpen kontseiluetako edo irakaskuntza berrikuntzako biltzarren batzorde zientifikoetako kide izatea. • Irakaskuntzari buruzko informazioa eta materiala dakarten web orrien edo blogen garapena 	2
	4.5.- Irakaskuntzan egindako aldaketaren inguruko hausnarketa analisia eta (% 15)		<ul style="list-style-type: none"> • Bere irakaskuntza jardueraren bilakabide, hobekuntza eta proiektioari buruzko gogoeta, jasandako aldaketa garrantzitsuak eta horien ondorioak aintzat hartuz. 	3

3.2. Ebaluazio irizpideak

Honakoak dira, DOCENTIAZ programan ebaluatu beharreko dimentsioetara doitu, irakaskuntza jarduera ebaluatzeko irizpideak:

- 1. Egokitzapen maila:** Irakaskuntza jarduerak UPV/EHUK eta berauek garatzen diren ikastegiak ezarritako antolaketari, plangintzari, irakatsi eta ikasteko prozesuaren garapenari eta ikasleen ikasteko prozesuaren bilakabideari dagozkien baldintzei erantzun behar die. Baldintza horiek titulazioaren ikasketa planean jasotako prestakuntza helburu eta gaitasunekin eta UPV/EHUren helburuekin bat etorri behar dute.
- 2. Gogobetetasun maila:** Irakaskuntza jarduerak irakaskuntzan sartuta dauden gainerako agenteen aldeko iritzia sortu behar du, batez ere, ikasleena, kideena eta arduradun akademikoena.
- 3. Eraginkortasuna:** Irakaskuntza jarduerak, irakasleen eskura jartzen diren baliabideak kontuan hartuz, ikasleen garapena, ikasketa planean ezarritako gaitasunen garapena ekarri behar du; azken finean, aurreikusitako emaitzen lorpena.
- 4. Irakaskuntza berrikuntzarako joera:** Irakaskuntza jarduerari, irakaslearen etengabeko prestakuntzari bide ematen dion jardunbide berari buruzko gogoetatik abiatuta heldu behar zaio, autoprestakuntzaren bidez edo beste instantzia batek erregulatutako prestakuntzaren bidez, eta bere garapena egiterakoan irakaskuntza planifikatzen den eta garatzen den moduan edo bere emaitzak ebaluatzeko moduan hobekuntzak egitearen aldeko jarrera izan behar da.
- 5. Sormena:** Irakaskuntza jarduerak erantzun berri eta egokiak eman behar ditu aurreikusi gabeko egoera konplexuen aurrean. Jardueraren testuinguruan topatzen dituen zailtasunak ikasleen aldetik gaitasunak hartzeko aukera bilakatu behar ditu.
- 6. Konplexutasuna:** Irakaskuntza jarduera garatzen den testuinguruari loturiko zailtasun maila kontuan izan behar da, jarduera hori ebaluatzerako garaian.
- 7. Barne koherentzia:** Irakaskuntza plangintzaren osagai ezberdinek (gaitasunak, irakatsi eta ikasteko modalitateak, eginkizunak eta ebaluazioa) sendotasun esplizitua izan behar dute.
- 8. Komunikazio gaitasuna:** Irakaskuntza jarduera ikasle taldearekiko komunikazioa errazten duten estrategien bidez adierazi/azaldu behar da.
- 9. Ikasleen autonomia sustatzea:** Irakaskuntza jarduerak lagundu egin behar dio ikasle taldeari gaitasunak eskuratzeko duen mailaz jabetzen eta erabaki akademikoak, profesionalak eta pertsonalak hartzen.

3.3. Informazio iturriak

Hiru dira DOCENTIAZ ereduaren informazioa eskuratzeko erabiltzen diren iturriak:

1. Autotxosten batekin parte hartzen duten **irakasleak** (2. eranskina).
2. Kasu honetan **Ikastegiko Kalitate Batzordean** zehaztutako arduradun akademikoak (3. eranskina).
Ikastegietako Kalitate Batzordeak informazio iturri dira. Batzorde horiek ebaluazioan parte hartzen duen irakaslearen lanari buruzko ebidentziak bildu beharko dituzte sailentzat.
Kalitate Batzordearen arau bidezko garapenak programa honetarako batzorde zientifikoa proposatzeko ahalmena duela jasoko du. Gomendagarria da batzorde zientifiko horretan sailak edo jakintza arloak behar bezala ordezkatzuta egotea.
3. Fase esperimenter honetan, **ikasleak** informazio iturri bilakatzen dira *Irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritzia buruzko inkestatik* abiatuz sortutako txostenaren bidez (4. eranskina).

Azkenik, UPV/EHUK irakasleen irakaskuntza jarduerari buruz ematen dituen datuak agertzen dira. Datuok aurreko iturrietan barneratzen dira eta ez dute txosten bereizirik sorrarazten.

3.4. Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordea

Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordea eskaera bakoitzari buruzko azken ebaluazio iritzia emateko ardura duen erakundea da. Irakaskuntzan ospe handia duten eta ebaluazio prozesuak ezagutzen dituzten UPV/EHUko irakasleek, ikasketetan ibilbide ona izan dutela frogatu duten hirugarren zikloko edo graduondoko ikasleek eta UNIQUALEko kideek osatzen dute.

Osaera: Aurkeztutako eskaerak baloratzeko Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordea eratuko da, honako kideekin:

- Irakaskuntza jarduera ebaluatzeko eskumena duen errektoreordea, edo horrek eskuordetzen duen pertsona. Bera izango da batzordeburua.
- Jakintza arlo ugarien ordezkari moduan irakaskuntzan esperientzia aitortu zabala duten (10 urte baino gehiago) 9 irakasle.
- UPV/EHU beren ikasketa guztiak garatu dituzten 2 ikasle.
- UNIQUALEko 2 kide.
- Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuko zuzendaria, edo, zuzendaririk ezean, teknikari bat (hitzarekin baina botorik gabe).

Batzordeburuak, ebaluatzea eskatzen duten irakasle kopuruaren arabera, Batzordeko kideen kopurua handitu dezake, eta baita jakintza arloei dagozkien azpibatzerdeak izendatu ere.

Izendatzea: Kideak Gobernu Kontseiluak berretsiko ditu irakaskuntza jardueraren ebaluazio arloan eskumena duen errektoreordearen proposamenari jarraiki. Errektoreak izendatuko ditu 4 urteko epealdi baterako, ikasleen kasuan izan ezik, hauek urtero izendatuko baitira.

Eginkizunak: Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak DOCENTIAZ programan parte hartzen dutenen espedienteak aztertu eta baloratuko ditu, ebaluazio protokoloan ezarritako irizpideen arabera (5. eranskina), eta irakasleek aurkeztutako datuen egiazkotasuna alderatzeko aukera izango du. Ebaluazioa hil bateko epean erabakiko da eta irakaslearen amaierako txostenaren bidez jakinaraziko zaie interesdunei (6A eranskina). Txosten horretan, dimentsio bakoitzaren balorazioa, oharrak eta gomendioak bilduko dira, baita lortutako amaierako puntuazioa ere.

Aurrekoaz gain, Batzordeak saileko, ikastegiko eta/edo Unibertsitateko arduradunentzako txostena idatziko du (6B eranskina) eta, bertan, aitormentza merezi duten jardunbide egokiak (nola banakakoak hala taldekoak) jasoko dira. Era berean, hobetu daitezkeen jardunbideak adieraziko ditu (irakasleak identifikatu gabe) eta egoki irizten dituen iradokizunak egingo ditu ikastegiak, sailak eta/edo Unibertsitateak bidezko neurri zuzentzaileak ezar ditzan.

Kideak aukeratzeko irizpideak: Batzordea eratzerakoan, gizonaen eta emakumezkoen arteko berdintasun legerian jasotzen diren irizpideak bete behar dira, eta, gutxienez, kideen erdiak beren irakaskuntza euskaraz eman beharko dute.

- *Irakasleak aukeratzeko irizpideak:*

- a) Unibertsitatearekiko lotura akademikoa, hamar urtekoa edo gehiagokoa.
- b) Unibertsitateko kideen irakaskuntza esperientzia zabala eta aitortua.
- c) Arduraldi osoa.
- d) Euskaraz irakasteko irakaskuntza gaitasun aitortua, hizkuntza horretan ematen den irakaskuntza ebaluatzen denean.
- e) Irakasle emerituak eta bisitariak kanpoan geratzen dira.

- *Ikasleak aukeratzeko irizpideak:*

- Plan zaharretako hirugarren zikloa edo plan berrietako graduondokoa egiten ari diren eta UPV/EHU lizentziatu edo graduatu diren ikasleak.
- Batzordeko kide den ikaslea historial akademiko onena dutenen artean aukeratu da, ahal denean.

Batzordeko kideren batek DOCENTIAZ programako deialdian parte hartzea eskatzen badu, Batzordean dituen erantzukizunetatik libre geratuko da prozesu honi dagokionez; horiek ordezkari batek hartuko ditu bere gain, behar izanez gero, edo, bestela, Batzordeko gainerako kideek, betiere, irakasle ordezkariak duen kargua edo egoera Batzordean behar bezala ordezkari badago.

Batzorde horren sorrera, izendapena eta funtzionamendua arautuko dituen prozedura lehen deialdia argitaratu aurretik jarriko da indarrean, eta DOCENTIAZ ATARIAN argitaratuko da.

3.5. Programa garatzen laguntzeko zerbitzuak

DOCENTIAZ programa garatzerakoan, Irakaslana Ebaluatzeke Zerbitzuak laguntza teknikoa eta aholkularitza emango ditu prozedurari buruz.

Ebaluaziotik datozen ekintzetarako (prestakuntza eta aholkularitza, batez ere), Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuak eta Kalitate Katedrak laguntza emango dute; horiek prestakuntza programez eta irakaskuntzaren eta kudeaketaren kalitatea hobetzeaz arduratzen dira UPV/EHUn.

Era berean, batzorde mistoa eratuko da, Irakasleen Errektoreordetzako ordezkariak, GAUR aplikazioko arduradunek eta SED/IEZko zuzendariak osatuta, GAUR aplikazioan sartutako datuen jarraipena egiteko.

4. KAPITULUA. Programa bere fase esperimentalean aplikatzeko prozedura

4.1. Deialdiaren irekiera

UPV/EHUK 2010eko maitzaren 3an argitaratuko du DOCENTIAZ programan norbere borondatez parte hartzeko fase esperimentalaren lehen deialdia. Aldez aurretik, UPV/EHUko web orrian sortutako DOCENTIAZ ATARIAren bidez eta egoki ikusten diren beste bitarteko batzuk erabiliz deialdiaren hedapena egingo da.

4.2. Eskaeren aurkezpena

Eskaerak 2010eko maiatzaren 3an hasi eta hilaren 31n amaituko da, UPV/EHUren web orriko DOCENTIAZ atarian. Parte hartu nahi duen irakasleak bere LDAP sartuko du http://lgpx09.lg.ehu.es/Exp_Docentiaz.nsf helbidean eta aplikazio informatikoak programan ezarritako baldintzak betetzen dituen jakinaraziko dio.

Hala bada, jarraian eskabideko datuak aktibatuko dira (1. eranskina), eta irakasleak ondorengo autotxostena egiteko irakasgaia aukeratu beharko du. Aukeratutako irakasgaiaren Irakaskuntza Plana erantsiko da. Delako irakasgaiak ondorengo bi baldintzak bete beharko ditu: bertan bost ikaslek egon behar dute matrikulatuta, gutxienez, eta irakasleak irakasgaiak dituen kredituen % 30 behintzat eman behar izango ditu.

Interesatuta dagoen irakasleak oniritzia emango die ebaluazio eskaerako datuei eta automatikoki programa informatikoan erregistratuta geratuko da. Ohartarazi behar da, irakasleak ez badaude ados UPV/EHUko erakunde oinarrietatik (funtsean, GAUR aplikaziotik) deskargatzen diren datuekin, erreklamazioa bideratu ahal izango dutela, Servicio de Evaluación Docente/Irakaslana Ebaluatzeke Zerbitzuak kudeatuko duena.

Egindako eskaera irakaslea atxikita dagoen Ikastegiko Kalitate Batzordeari helaraziko zaio. Une horretatik aurrera, irakasleak ekainaren 30 arte izango du autotxostena betetzeko, eta, horretarako, DOCENTIAZ eskuliburuan jasotako jarraibideak izango ditu.

4.3. Ikastegiko Kalitate Batzordeak eratzea

DOCENTIAZ ATARIAren bidez programan parte hartuko duten irakasleen zerrenda ezagutarazi ondoren, eskaeraren berri emango zaio irakasle parte-hartzailea atxikita dagoen Ikastegiko Kalitate Batzordeko presidenteari.

Ikastegian DOCENTIAZ txostena egiteaz arduratuko den batzordeak telematikoki beteko du txostena. Irakasleak aukeratutako irakasgaia beste ikastegi batean emango balitz, informazioa dagokion ikastegiari eskatuko zaio. Batzordeak 2010eko irailaren 10a baino lehen bidali beharko du txostena.

4.4. Irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritziari buruzko inkestan oinarrituta txostenak egitea

Parte hartuko duten irakasleek DOCENTIAZ atarian kontsultatu ahal izango dituzte *Irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritziari buruzko inkestan* oinarritutako txostenak, GAUR aplikazioko "inkestak" atalean (4. eranskina). 2006/07 ikasturtetik aurrerako txostenak ikus daitezke, orduan barneratu baitzen inkesta GAUR aplikazioan.

SED/IEZk 2010eko uztailaren 1a baino lehen helaraziko dizkio txostenok Ikastegiko Kalitate Batzordeari.

4.5. Hainbat iturritatik informazioa jasotzea eta espedienteak egitea

SED/IEZk, horretarako sortutako espedienteen datu basean, iturri bakoitzetik etorritako informazioa barneratuko du: autotxostena, Ikastegiko Kalitate Batzordearen txostena eta *Irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritzari buruzko inkestan* oinarrituta egiten den txostena.

Txosten guztiak eskaera egin duten irakasleen espedienteen sartuta egongo dira 2010eko irailaren 24a baino lehen. Data horretan, SED/IEZk espediente horiek Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeari helaraziko dizkio.

4.6. Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordea eratzea

Gobernu Kontseiluak, irakaskuntza jardueraren ebaluazio arloan eskumena duen errektoreordeak hala proposatuta, Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeko kideak berretsiko ditu.

Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak espediente guztiak jasoko ditu 2010eko irailaren 24a baino lehen. Data horretatik aurrera informazioa aztertzen eta baloratzen hasiko da.

Txostenak DOCENTIAZ ATARIAN integratuko dira, eta informazio horretara pasahitz baten bidez soilik sartu ahal izango da irakaslea.

4.7. Ebaluazioko amaierako txostenak prestatzea eta zabaltzea

Irakaslearen amaierako txostenak balorazio kualitatiboa izango du, ebaluazio eredia osatzen duten dimentsioei buruz. Era berean, irakasleak lortutako amaierako puntuazioa ematen du, dimentsiotan banakatua. Irakaslearen amaierako txostenak 100 puntu izango ditu, gehienez. Nolanahi ere, 0 dimentsiotik ateratzen den indizea aplikatu ondoren, puntuazio hori 120 puntukoa izan daiteke.

Gutxienez irakaslanaren erdia euskaraz egiten duten irakasleek lortutako puntuak 1,2 biderkatuko dute. Betiere, ebaluazioaren azken emaitza 120tik gorakoa ez bada.

Kontrako ebaluazioa: kontrako ebaluazioa izango da irakaslearen amaierako txostenean 30 puntu baino gutxiago lortzen duena.

Aldeko ebaluazioa: aldeko ebaluazioa izango da irakaslearen amaierako txostenean 30 eta 90 puntu artean lortzen dituen; ondorengo baldintzak bete beharko dira:

- 1 dimentsioan, Irakaskuntzaren plangintzari dagokionean, gutxienez 5 puntu lortzea.
- 2 dimentsioan, Irakatsi eta ikasteko prozesuaren garapenari dagokionean, gutxienez 15 puntu lortzea.

Ebaluazio bikaina: ebaluazio bikaina izango da irakaslearen amaierako txostenean 90 puntu baino gehiago lortzen duena.

Ikastegira edo sailera zuzendutako amaierako txostenak dagozkien arduradunei bidaliko zaizkie eta unibertsitateko kideek kontsultatu ahal izango dute, SED/IEZri eskatuta. Txostenak parte hartzen duten irakasleak ikastegi edo sail bateko kideen % 20 badira prestatuko dira.

Erakundeari zuzenduriko amaierako txostenak ebaluazio eredia osatzen duten dimentsioei buruzko balorazio kualitatiboa izango du. Era berean, amaierako puntuazioa ematen du, dimentsiotan banakatuta. Txosten honetan, irakasleak ondo lan egin izanaren adibide diren jardunbide batzuk adieraziko dira, zabaldu eta aintzat hartuak izan daitezten. Txosten honek balio instituzional handia du, sail edo ikastegi jakin baten irakaskuntza jardura bere osotasunean baloratzea eta, azken baten, irakasleen prestakuntza planei, aitormenei... lotutako erabakiak hartzea ahalbidetzen duelako.

Ebaluazioaren arloan ardura dituzten errektoreordetzek (eta hauen zerbitzuek) erabilera konfidentziala duten txosten guztiak jasoko dituzte, ebaluazio prozesuan lortutako emaitzetatik eratorritako erabakiak har ditzaten.

Ikastegiko Kalitate Batzordeak ebaluazioan emaitza txarra izan duten irakasleen banakako txostenak jasoko ditu, dagozkien hobekuntza jarduerak diseinatzen eta jarraipena egiten laguntze aldera. Batzorde horretako kideek txosten horietan dagoen informazioa isilean gordetzeko betebeharra izango dute.

4.8. Alegazioen prozedura

Amaierako erabakiari buruz alegazioak aurkezteko, 15 eguneko epea egongo da, irakaslearen amaierako txostena jasotzen den egunetik hasita.

Alegazioak formatu elektronikoa aurkeztuko dira (7. eranskina), DOCENTIAZ ATARIaren bidez; haiekin batera, bidezkoak iruditzen diren agiriak eta ziurtagiriak ere aurkeztu ahal izango dira.

Epea amaitu eta alegaziorik aurkeztu ez bada edo interesdunak adierazi badu ez duela alegaziorik egingo eta ezta agiri edo ziurtagiri gehiagorik aurkeztuko ere, izapidea burututzat joko da.

Batzordeak gutxienez hilabeteko epea izango du jasotako alegazioak aztertu eta haien gaineko erabakiak hartzeko eta amaierako txostena prestatzeko. Amaierako txosten horren kontra gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio UPV/EHUKo errektoreari eta honek xede horretarako sortutako Berme Batzordeari bidaliko dio. Batzorde hau honela osatuta egongo da:

- Errektorea, edo honek eskuordetzen duen pertsona. Bera izango da batzordeburua.
- Ebaluazio arloan eskumena duen errektoreordea.
- Jakintza arlo bakoitzeko irakasle ordezkari bana
- Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuaren arduraduna, edo honek eskuordetzen duen pertsona.
- Ikasleen ordezkari bat.

Berme Batzordeko kideek errektoreak proposatuko ditu eta Gobernu Kontseiluak berretsiko. Batzordeak ordezkari sindikalei entzungo die erabakiak ebaluatzen den irakaslearen lan baldintzetan eragina duen kasuetan.

5. KAPITULUA. Programa bere fase experimentalean aplikatetik eratorritako erabakiak hartzeko ezarritako prozedura

5.1. Irakaslanaren ebaluaziotik eratorritako ekintzen jarraipena

UPV/EHUK DOCENTIAZ programatik eratorritzen diren ekintzen jarraipena egiteko laguntza emango du, irakasleei zuzendutako prestakuntza programak gauzatzearen arduradun diren Kalitate Katedraren eta Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuaren (SAE/HELAZ) bitartez.

Irakasleei dagokienez:

Ebaluazio prozesua amaitu eta gero, ebaluazioan emaitza negatiboa atera duten irakasleek beren hobekuntza plana/proposamena egingo dute, hurrengo ebaluazio deialdira berriro aurkeztu baino gutxienez urtebete lehenago. Hobekuntza planaren jarraipena Ikastegiko Kalitate Batzordeak egingo du.

Unibertsitateari dagokionez:

Ikastegiak eta sailek beren jarduera autoebaluatzeko eta antolakuntzan eta prestakuntzan egin beharreko aldaketak egiteko erabiliko dute irakaslanaren ebaluazioan eskuratutako informazioa. Aldaketa horiek ikastegiko kudeaketa planean agertuko dira. Ondorioz, ikasturte bakoitzean ikastegiak ebaluazio bat egingo du, bere kudeaketa planean irakaskuntzaren inguruan eginiko hobekuntzei buruz.

Kalitate eta Ikasketa Berrikuntzako Errektoreordetzak eta Irakasleen Errektoreordetzak beren gain hartuko dute kalitatea, bikaintasuna eta zuzentasuna faboratzen duten irakaskuntza jardunbideen (indibidualen nahiz kolektiboen) aitormen ekintzak ezartzeko ardura.

5.2. Programaren erregulazio sistema

Irakaslanaren Ebaluatzeko Zerbitzuak (SED/IEZ) DOCENTIAZ programaren erregulazio sistema bat ezarriko du, fase experimentalean hautemandako akatsak zuzentzea ahalbideratuko duena. Horretarako tresna ugari erabiliko dira. Horien artean, UPV/EHUKo web orrialdean DOCENTIAZ ATARIA diseinatuko da eta, bertan, programan parte hartzen dutenen iradokizun guztiak jasoko dira.


Programaren garapen experimentalarekin batera, programan inplikaturik dauden agente guztien ordezkari izango diren eztabaida taldeak sortuko dira, irakaskuntza jarduerari buruzko ikuspegia azal dezaten.

Azkenik, erregulazio sistemaren ekintza ezberdinen emaitzei buruzko txostena prestatuko da, DOCENTIAZ programaren Jarraipen Batzordeari helaraziko zaiona, onar dezan.

ERANSKINAK

- 1. eranskina** Programan parte hartzeko eskabide eredia
- 2. eranskina** Irakaslearen autotxosten eredia
- 3. eranskina** Ikastegiko Kalitate Batzordearen txosten eredia
- 4. eranskina** *Irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritziari buruzko inkestan oinarritutako txosten eredia*
- 5. eranskina** Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordearentzako ebaluazio protokoloa
- 6A eranskina** Irakaslearen amaierako txosten eredia
- 6B eranskina** Erakundeari zuzendutako amaierako txosten eredia
- 7. eranskina** Alegazioetarako formulario eredia
- 8. eranskina** Irakaskuntza zamari dagokion 0 dimentsioaren gaineko simulazioa
- 9. eranskina** Eskuliburuan erabilitako terminoen glosarioa

1. eranskina. Programan parte hartzeko eskabide eredua



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

DOCENTIAZ PROGRAMA UPV/EHUko irakasleen irakaskuntza jardueraren ebaluazio programa

EBALUAZIO ESKAERA

(Aplikazio informatikoak informazioa deskargatuko du. Irakasleak oniritzia emango die islatutako datuei.
Ados egon ezean, erreklamazioa egin ahal izango da, SED/IEZk kudeatuko duena)

Irakaslearen informazioa

NANa	
Izen-abizenak	
Kategoria akademikoa	
Saila	
Atxikitako ikastegia	

DOCENTIAZ programan parte hartzeko baldintzak



Kontratuko 3 urteak bete ditu.

Ebaluatu beharreko aldia

Irakaskuntza zama, guztira:

Ikasturtea	Irakaskuntza zama	Kargu edo lizentzien ondoriozko murrizketa
-------------------	--------------------------	---

Autoxostena egiteko aukeratutako irakasgaia

Irakasgaia 	Seleccione una asignatura 
Izena	
Mota	
Eskolak emateko hizkuntzak	
Plana	
Ikastegia	

DATUEKIKO ADOSTASUNA

Ados nago leihoan erakutsitako datu guztiekin.

Bai Ez

Irakasgaiaren irakaskuntza gida

Mesedez, erantsi irakaskuntza gida. Kontuan izan bidalketa behin betikoa izango dela.

2. eranskina. Irakaslearen autotxosten eredia



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

DOCENTIAZ PROGRAMA
UPV/EHUko irakasleen irakaskuntza jardueraren
ebaluazio programa

Irakaslearen autotxostena

Irakaslea: _____

Saila: _____

Atxikitako ikastegia: _____

Ebaluatu beharreko denboraldia: _____

Helbide elektronikoa: _____

Txostenaren igorpen data:

Irakaslearen autotxostena betetzeko gida

DOCENTIAZ programaren helburu nagusia kalitatea, bikaintasuna eta zuzentasuna bultzatzen duten irakaskuntza jardunbide egokiak hautematea eta aitortzea da, hori dela eta, irakaskuntza jardunbide egokiak eta ikasleengan prestakuntza helburuei dagokienez lortutako emaitzak nabarmentzeko deia luzatzen dugu.

Autotxosten honek DOCENTIAZ programaren ebaluazio ereduari erantzuten dio. Honek titulazioaren helburuekin bat etorri behar duen eginkizun kolektibotzat hartzen du irakaskuntza jarduera.

Tresna honek gogoeta eta ezinbesteko autokritika sustatu nahi ditu, profesional gisa haztea ekiditen duten irakaskuntza lanaren ildoak hobetzeko.

Autotxostena bost dimentsiotan egituratzen da:

0. Irakaskuntza zama (aniztasuna, intentsitatea eta tipologia)
 1. Irakaskuntzaren plangintza
 2. Irakatsi eta ikasteko prozesuaren garapena
 3. Emaitzak
 4. Irakaskuntzaren garapen profesionala: prestakuntza, berrikuntza, eta hobekuntzara bideraturiko jarduera instituzionalak

Autotxostenak amaierako txostenean izango duen azken eragina erabakigarria izango da. Ikastegiko Kalitate Batzordearen txostenak eta *Irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritziari buruzko inkestaren* txostenean ageri diren ikasleen balorazioek, hasiera batean, autotxostenaren edukiarekin bat etorri beharko dute.

UPV/EHUko Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak bi txosten mota prestatuko ditu:

1.- Irakaslearen amaierako txostena: DOCENTIAZ programan parte hartzen duten irakasleei zuzendua. Txosten honek alde kualitatibo bat izango du eta bertan irakaskuntza jardunbide egokiak edota hobetzekoak adieraziko dira.

2.- Erakundeari zuzendutako amaierako txostena: dagokien arduradun akademikoei zuzendua. Erantsitako txostena izango da; bertan sail edo ikastegi bateko irakasleen jardunbide egokiak eta hobetzekoak jasoko dira.

0 dimentsioa.- Irakaskuntza zama

Dimentsio honek faktore zuzentzaile gisa dihardu eta irakaskuntzan dauden zailtasun maila ezberdinak hartzen ditu kontuan. 5 ikasle edo gehiago matrikulatuta dituzten irakasgaiak bakarrik hartuko dira aintzat, betiere, ondorengo bi baldintzak betetzen badituzte: kasuan kasuko irakasgaiaren irakasleek gutxienez kreditu bat ematea, eta hori irakasgaiaren kreditu guztien % 30 izatea gutxienez.

1 eta 2 dimentsioak.- Irakatsi eta ikasteko prozesuaren plangintza eta garapena

Bi atal hauek betetzeko eta lan hori errazte aldera, graduoko edo graduondoko IRAKASGAI BAKAR bat hartu behar da aintzat. Irakasleak ebaluatu beharreko denboraldiko azken ikasturteari dagokion irakasgai bat aukeratuko du, ahal izanez gero.

3 dimentsioa.- Emaitzak

Atal honetan, Zerbitzu Orokorrek emandako datuei buruzko gogoeta eta balorazioa egin behar da (arrakasta eta errendimendu tasak), ebaluatu beharreko denboraldian irakaskuntza eman zaien ikasleengan lortutako prestakuntzari dagokionez. Era berean, atal bat prestatu da irakasleek dagokion testuinguruan ipini ditzaten ikasleek ebaluatu beharreko denboraldian jasotako irakaskuntzari buruz ematen dituzten iritziak. Era berean, zuzendutako edo gainbegiraturutako lan akademikoak egin izana eta doktorego tesiak zuzendu izana hartuko da kontuan.

4 dimentsioa.- Irakaskuntzaren garapen profesionala: prestakuntza, berrikuntza, eta hobekuntzara bideraturiko jarduera instituzionalak

Irakaskuntzaren garapen profesionala osatzen duten jarduera, ekintza edo material guztiak deskribatzea eskatzen da.

Mila esker DOCENTIAZ programaren fase esperimentalean lagundu eta parte hartzeagatik.

0 DIMENTSIONA.- IRAKASKUNTZA ZAMA

0 dimentsioaren helburua: faktore zuzentzaile gisa jardutea eta irakaskuntzan dauden zailtasun maila ezberdinak kontuan hartzea.

UPV/EHUK berak emango ditu irakaskuntza zamari buruzko ebidentziak. Irakasle bakoitzak informazioa osatu ahal izango du eta dimentsio hau egokiago baloratzen lagunduko duten beste zenbait ekarpen egin ahal izango ditu.

Irakaskuntza enkargua izango da erreferentzia dimentsio honetako gainontzeko faktoreak aplikatzeko (1tik 6ra). Ikusi 1. taula: *0 dimentsioaren gaineko simulazioa* (8. eranskina).

1. Ebaluatu beharreko denboraldian emaniko irakasgai desberdinen kopurua aitortuko da. Ondorengo formula aplikatuko da ebaluatu beharreko denboraldia osatzen duen urteen guztietarako:

$$1 + (\text{irakasgai kopurua}-1) * 0,05$$

2. Ebaluatu beharreko denboraldian irakaskuntza eman den ikastegi kopurua aitortuko da. Ondorengo formula aplikatuko da ikasturteko eta ebaluatu beharreko denboraldirako batezbestekoa aterako da:

$$1 + (\text{ikastegi kopurua}-1) * 0,05$$

3. Ebaluatu beharreko denboraldian irakaskuntza eman den taldeetan matrikulatutako ikasle kopurua aitortuko da, eta puntuazio handiena 50 ikasle baino gehiagoko taldeei emango zaie.

Taldea-Irakasgaia irakasleak gutxienez 1 kreditu eman badu bakarrik hartuko da aintzat. Ondorengo formula aplikatuko da ikasturteko eta ebaluatu beharreko denboraldirako batezbestekoa aterako da:

$$1 + (\text{matrikulatuta 50-80 ikasle artean dituzten taldeen kopurua}) * 0,05 + (\text{matrikulatuta 80 ikasle baino gehiago dituzten taldeen kopurua}) * 0,1 + (\text{matrikulatuta 20 eta 50 ikasle artean dituzten taldeen kopurua}) * 0,01 + (\text{matrikulatuta 20 ikasle baino gutxiago dituzten taldeen kopurua}) * 0,01.$$

Formula horren laugarren batugaia matrikulatuta 20 ikasle baino gutxiago dituzten taldeen kopurua 3koa edo handiagoa denean bakarrik aplikatuko da. 5 talde edo gehiago baldin badaude, 5eko zifra hartuko da gehienezko gisa.

4. Ebaluatu beharreko denboraldian graduko lehenengo mailan emaniko enborreko eta derrigorrezko irakasgaien kopurua aitortuko da. Ondorengo formula aplikatuko da ikasturteko eta ebaluatu beharreko denboraldirako batezbestekoa aterako da:


$$1 + (\text{graduko lehenengo mailako enborreko irakasgai kopurua}) * 0,05$$

5. Laneko testuingurua:


Kontratu egonkorra duten irakasleak (arduraldi osoa edo partziala) (1)

Kontratu ezegonkorra duten irakasleak (arduraldi osoa edo partziala) (1,1)

Ebaluatu beharreko denboraldiaren ondoren ateratzen den indizea. Gogoratu behar da indize horri Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak 6. atalari emandako puntuazioa gehitu behar zaiola.



6. Nabarmen itzazu zure irakaskuntza zamatik kontuan hartu ez diren alderdiak, adibidez, ebaluatu beharreko denboraldian doktorego tesia defendatu duzula, euskalduntze prozesuan zaudela (Euskara Errektoreordetzaren oniritzia aurkeztu beharko duzu), ama² edo aita izan zarela, ardurapean menpeko pertsonak dituzula, gaixotasun larriren bat izan duzula, etab. Era berean, adieraz itzazu zure irakaskuntza jardueraren laneko testuinguruari eta testuinguru sozialari dagozkien alderdiak, zure gain harturiko zama baloratzea ahalbidetuko dutenak. Adierazitako inguruabarrak agiri bidez justifikatu beharko dira.



6. atala faktore gehigarri bat da, Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak baloratu behar duena. 1 eta 1,15 arteko heina.

² Genero politika izango da erreferentzia 2007-2011 aldirako Plan Estrategikotik ateratako eta berdintasun eta menpekotasun legeetan oinarritutako erakunde estrategia gisa.

1 DIMENTSIOA.- IRAKASKUNTZAREN PLANGINTZA

1 dimentsioaren helburua: Titulazioko irakaskuntza plangintzaren kalitatea baloratzea. Europako Unibertsitate Eremura (EUE) egokitutako tituluetan, irakaskuntza plangintzak titulua planifikatzeaz eta garatzeaz arduratzen den batzordeak ezarritako jarraibideekin bat etorri beharko du.

1.1.- Gaien plangintza eta beste irakaskuntza jarduketa batzuekiko koordinazioa

1.1.1.- Gaien plangintza (irakaskuntza planaren kalitatea)

Ematen ditudan irakasgaien irakaskuntza planak gaiaren jarraipena egiteko beharrezko informazioa jasotzen du, gutxienez ondorengoei buruzkoa:

- Irakaskuntza metodoa eta/edo irakatsi eta ikasteko modalitateak
- Helburuak eta/edo gaitasunak
- Irakasgaien zerrenda
- Ebaluazio irizpideak
- Bibliografia

--

1.1.2.- Beste irakaskuntza jarduketa batzuekiko koordinazioa

1. Mailako koordinatzaile lanak egin dituzun aldia (ebidentzia: UPV/EHuren datua):

Inoiz ez	1 ikasturte	2 ikasturte	3 ikasturte	4 ikasturte	5 ikasturte
----------	-------------	-------------	-------------	-------------	-------------

2. Irakasgaiko koordinatzaile lanak egin dituzun aldia (ebidentzia: UPV/EHuren datua):

Inoiz ez	1 ikasturte	2 ikasturte	3 ikasturte	4 ikasturte	5 ikasturte
----------	-------------	-------------	-------------	-------------	-------------

3. Adieraz ezazu ea honako hauei dagozkien koordinazio eta lankidetzako prozesuetan parte hartzen duzun:

	Ikastegiak ezarriak	Taldean, irakasgaian, mailan eta titulazioan parte hartzen duten irakasleek ezarritakoak	Ez dago koordinazio mekanismorik
1. Beren irakasgaietako irakaskuntza planak egiten			
2. Irakatsi eta ikasteko prozesua garatzen			
3. Ebaluazio prozedurak eta irizpideak ezartzen			

Deskriba ezazu koordinazio eta lankidetzako prozesu hauek edo beste batzuk nola gauzatzen dituzun edo, bestela, zergatik ez dagoen koordinaziorik.

--

2 DIMENTSIONA.- IRAKATSI ETA IKASTEKO PROZESUAREN GARAPENA

2 dimentsioaren helburua: Irakatsi eta ikasteko prozesuaren garapena egokitzea, tituluan ezarritako jarraibideekin bat etor dadin. Europako Unibertsitate Eremura (EUE) egokitutako tituluetan, irakatsi eta ikasteko prozesuaren garapenak titulua planifikatzeaz eta garatzeaz arduratzen den batzordeak ezarritako jarraibideekin bat etorri beharko du.

2.1. Irakatsi eta ikasteko jarduerak eta irakaskuntzarako materialak

2.1.1.- Irakatsi eta ikasteko jarduerak

Metodologia

1. Zehatz itzazu gaiari heltzerakoan ikasleekin ezartzen dituzun prozedurak eta estrategiak, beren itxaropenak, aurretiazko ezagutzak eta motibazioa ikuste aldera.

2. Adieraz ezazu zer jarduera edo zeregin burutzen dituzun ikasleekin irakatsi eta ikasteko prozesua garatzeko. Azal itzazu halaber taldekatzeko modua eta jarduera bakoitzaren presentzia.

3. Nabarmen itzazu irakaskuntzan erabili dituzun eta zeure ikasleen ikasteko prozesuan garrantzi handienekotzat jotzen dituzun bi baliabide/material (adibidez: IKTak, eskuliburuak, unitate didaktikoak...).

1-

2-

Ikasleen partaidetza

Deskriba itzazu ikasleekin eta ikasleen artean komunikazio giroa sortzeko erabili dituzun estrategiak, baita ikasleek ikasteko prozesuan modu aktiboan parte hartzeko estrategiak ere.

Ikasteko prozesuen ebaluazioa

1. Adieraz itzazu erabili dituzun ebaluazio sistemak, amaierako notarekiko bakoitzak duen balioaren portzentajea adieraziz:

ERABILITAKOEBALUAZIO METODOAK	AMAIERAKO NOTAREKIKO %	PROBEN TIPOLOGIA	AMAIERA KO NOTAREKI KO %
Azterketa partzialak		Test moduko azterketa	
Amaierako azterketa		Garatu beharreko galderak	
Ebaluazio jarraitua		Lan praktikoa(k)	
Beste batzuk. Zeintzuk?		Ahozko azterketa	
		Aurkezpena, ikasgelan	
		Beste batzuk. Zeintzuk?	

Justifika ezazu nola lotzen dituzun ebaluazio sistema eta irakatsi eta ikasteko prozesuaren plangintza eta garapena.

2.1.2.- Irakaskuntzarako materialak eta baliabideak

Adieraz itzazu ebaluatu beharreko denboraldian zehar zeure irakaskuntza lana garatzeko sortu dituzun 5 material nabarmenenak (liburuak, monografiak, dosierrak, praktika koadernoak, ariketa koadernoak, web bidezko garapenak, etab.), ISBN/ISSN izan ala ez. Arreta berezia jarriko zaio euskarazko ekoizpenari:

Mota	Deskribapen laburra	Sorrera urtea	Prestakuntza		Hizkuntza	ISBN/ISSN
			Bakarka	Elkarlanean		

SED/IEZ Ikastegiko Kalitate Batzordera bidaliko ditu behar diren materialak, deialdi bakoitzean ezarritako eguna baino lehen, hark balorazioa egin dezan.

3 DIMENTSIONA.- EMAITZAK

3 dimentsioaren helburua: Prestakuntza helburuei dagozkien emaitzak baloratzea. Horretarako, ikasleen emaitza akademikoak eta irakaskuntza jarduerarekiko gogobetetasun maila aztertuko dira. Era berean, zuzendutako edo gainbegiratutako lan akademikoak egin izana eta doktorego tesiak zuzendu izana hartuko da kontuan.

3.1 Prestakuntza helburuei dagozkien emaitzak

3.1.1.- Prestakuntza helburuei dagozkien emaitzak

1. Sistemak deskargatuko ditu Ikasleen arrakasta tasak. Balora itzazu zure ikasleen emaitza akademiko hauek eta horien eboluzioa, taldearen eta ikasturtearen batezbestekoarekin alderatuz.

2. Balora itzazu 2006/07 ikasturtetik aurrera *Irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritziari buruzko inkestan* lortutako emaitzak. Horretarako, ondorengo txostenak kontsultatu beharko dituzu *GAUR*³ aplikazioan, Inkestak atalean:
 - Autotxostena prestatzeko aukeratutako irakasgaiaren *Irakaskuntza Egoeraren Txostena*, titulazioaren alderatzearekin.
 - *Irakaslearen Txostena*, Sailaren alderatzearekin.

3. Adieraz itzazu zuzendu edo gainbegiratu dituzun lanak (gradu amaierako lanak, master amaierako lanak, masterretan tutore izan zaituzten lanak, borondatezko praktiketako lanak eta karrera/master amaierako proiektuak). Adieraz itzazu, era berean, tutoretza prozesua eta baldintzak.

4. Adieraz itzazu zuzendu dituzun doktorego tesiak, Europakoak eta sari edo aipamenen bat jaso dutenak nabarmenduz. Adieraz itzazu, era berean, tutoretza prozesua eta baldintzak.

³ Irakaskuntza Egoeraren Txostenak GAUR-INKESTA-TXOSTENAK-IRAKASKUNTZA EGOERAREN TXOSTENAK azpiatalean daude eta Irakaslearen Txostenak GAUR-INKESTA-TXOSTENAK-AGREGATUEN TXOSTENAK-IRAKASLEAREN TXOSTENA azpiatalean.

--

4 DIMENTSIONA.- IRAKASKUNTZAREN GARAPEN PROFESIONALA: PRESTAKUNTZA, BERRIKUNTZA, ETA HOBEEKUNTZARA BIDERATURIKO JARDUERA INSTITUZIONALAK

4 dimentsioaren helburua: Irakaskuntzaren garapen profesionala UPV/EHUn bikaintasuneko irakaskuntza lortzeko helburuen arabera baloratzea.

4.1.- Irakaskuntzaren kalitate instituzionaleko prozesuetan parte hartzea

Adieraz itzazu unibertsitateko irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko jarduera instituzionaletan izan duzun partaidetzari buruzko datuak (IBPn, titulazioaren kalitate batzordean eta plangintza batzordean parte hartzea, diseinu eta ebaluazio jardueretan parte hartzea, bai instituzio mailan eta bai ikastegi mailan: batzordeetako aholkularitza, sailetako irakaskuntza batzordeetako partaidetza, kalitate ziurtagiri eta aipamenak jasotzea, Practicum batzordeetako partaidetza, beren irakaskuntza proiektua garatzen ari diren irakasleen tutoretza, ikasleen truke programak - SENECA, ERASMUS, SICUE...):

Jarduera	Maila, urtea edo deialdia	Inplikazioa	
		Zuzendaritza	Partaidetza

4.2.- Prestakuntza

4.2.1.- Jasotako prestakuntza

- Adieraz itzazu parte hartu duzun 5 prestakuntza jarduera garrantzitsuenak (kurtso, mintegi, lantegi, eztabaida foro, jardunaldi, kongresu, lan taldeak...):

Jardueraren izenburua	Instituzioa, lekua, data eta Jardueraren iraupena
1.	Instituzioa:
	Lekua:
	Data:
	Iraupena:
2.	Instituzioa:
	Lekua:
	Data:
	Iraupena:
3.	Instituzioa:
	Lekua:
	Data:
	Iraupena:
4.	Instituzioa:
	Lekua:
	Data:
	Iraupena:
5.	Instituzioa:
	Lekua:
	Data:
	Iraupena:

2. Adieraz itzazu irakaskuntza hobetzeko UPV/EHUn garatu diren prestakuntza jarduera garrantzitsuenetako 2 (ikastaroak, mintegiak, lantegiak, eztabaida foroak, jardunaldiak, biltzarrak, lan taldeak...).

--

3. Balora ezazu jasotako prestakuntza horrek zure irakaskuntzan izan duen eragina.

--

4.2.2.- Emandako prestakuntza

1. Adieraz itzazu ebaluazio-gai den epealdian zehar, UPV/EHUn **irakasle** gisa partaide izan zaren irakaskuntzarako prestakuntza 5 jarduerak (kurtsoa, mintegia, lantegia, eztabaida foroak, jardunaldia, kongresua, lan taldeak...):

Jardueraren izenburua	Tipologia	Ikasturtea	Instituzioa, lekua, data eta jardueraren iraupena
1.-			Instituzioa:
			Lekua:
			Data:
			Iraupena:
2.-			Instituzioa:
			Lekua:
			Data:
			Iraupena:
3.-			Instituzioa:
			Lekua:
			Data:
			Iraupena:
4.-			Instituzioa:
			Lekua:
			Data:
			Iraupena:
5.-			Instituzioa:
			Lekua:
			Data:
			Iraupena:

- Adieraz itzazu unibertsitateko irakaskuntza hobetzeko UPV/EHUn garatu diren prestakuntza jardura garrantzitsuenetako 2 (ikastaroak, mintegiak, lantegiak, eztabaida foroak, jardunaldiak, biltzarrak, lan taldeak...).

--

4.3.- Irakaskuntza berrikuntza

- Adieraz itzazu partaidetzako arlo zientifikoaren barneko berrikuntza proiektuak (hezkuntza berrikuntzako proiektua-HBP, beste batzuk...) edota zeure gai(ar)ekin zerikusia duten argitalpenak, zuk parte hartutakoak soilik.

Aplikazio informatikoa prest dagoenean, UPV/EHuren datu baseetako informazioa deskargatuko da.

Izenburua	Ikastegia, taldeko kideak	Tipologia	Ikastaroa	Inplikazioa	
				Zuzendaritza	Partaidetza

4.4.- Proiektzioa

- Irakaskuntza proiektzioarekin loturiko jardura hauetan parte hartzeari buruzko datuak eman itzazu:
 - Irakasle bisitari gisa beste unibertsitate batzuetan eskolak emateko gonbidapenak/egonaldiak.
 - UPV/EHuren irakaskuntzaren kanpo ebaluazioaren nazio mailako edo nazioarteko batzordeetako kide aditua.
 - Irakaskuntza jarduerarekin zerikusia duten jasotako sariak.
 - Irakaskuntza arloko aldizkarien argitalpen kontseiluetako kidea edo irakaskuntza berrikuntzako biltzar zientifikoaren eta bestelako batzordeetako kidea.
 - Irakaskuntzarako web gune baten diseinua eta garapena.

Egonaldia/Batzordeetako partaidetza/Saria	Erakundea, lekua, denboraldia
	Erakundea:
	Lekua:

	Denboraldia:
	Erakundea:
	Lekua:
	Denboraldia:
	Erakundea:
	Lekua:
	Denboraldia:

4.5.- Irakaskuntzan egindako aldaketaren inguruko gogoeta eta azterketa

1. Deskriba itzazu irakatsi eta ikasteko prozesuaren inguruko gogoetaren eraginez eta irakasle gisa egindako lanaren eraginez zeure irakaskuntzan egin dituzun aldaketak.

2. Adieraz itzazu zeure irakaskuntza jardueraren indarguneak eta hobetzeko alorrak:

Zeure irakaskuntzaren indarguneak	Zeure irakaskuntzaren hobetzeko alorrak

Irakasleak burututako jardueren ziurtagirien kopiak Irakaslana Ebaluatze Zerbitzuari bidali beharko dizkio eta horrek Irakaslana Ebaluatze Unibertsitate Batzordeari.

Eskerrik asko zure laguntzagatik

3. eranskina. Ikastegiko Kalitate Batzordearen txosten eredia



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

DOCENTIAZ PROGRAMA
UPV/EHUko irakasleen irakaskuntza jardueraren ebaluazio programa

Ikastegiko Kalitate Batzordearen txostena

Irakaslea: _____

Saila: _____

Atxikitako ikastegia: _____

Ebaluatu beharreko denboraldia: _____

Txosten hau prestatzen parte hartu duten kideen zerrenda:

IZEN-ABIZENAK	KARGUA EDO ORDEZKARITZA

Batzordeko presidentearen eta/edo idazkariaren helbide elektronikoa:

Txostenaren igorpen data:

Ikastegiko Kalitate Batzordearen txostena betetzeko gida

Ikastegiko Kalitate Batzordeko kideek irakaslearen irakaskuntza jarduera berau garatzen den testuinguru instituzionalean deskribatu eta baloratu beharko dute. Ikastegietako arduradun akademikoek, beren funtzioak jorrazteko garaian, euren eskumenen eremuan garatzen diren irakaskuntza jardueren inguruko ikuspegi zabala eta zeharkakoa dutelako ikusmoldeetik abiatzen da. Hori dela eta, arduradun akademikoek DOCENTIAZ programan parte hartzen duten irakasleen irakaskuntza jarduerari buruzko gogoeta bateratua egitea eskatzen da.

Atal irekiak betetzea oso garrantzitsua da, irakasleen eta erakundearen jarduerari buruzko ebidentziak ematen baitituzte, eta horrek irakasleek garatutako lana testuinguru batean kokatzea ahalbideratzen du.

